



# EZ EZAZU HONDOA JO

## EUTSI UNE ORO ZAINTZA ERAGINKORRARI



**Eutsi arretari pilotu  
automaticoa erabiltzen  
duzunean ere**

- Horren menpe dago ontziaren gobernua mantentzea.
- Ez utzi zubia.
- Saihestu arreta desbideratu dezaketen beste zereginak.
- Atsedean eta zaintza ordu batzuk ezarri behar dituzu ontzian. Nekea ez da lemazain ona.
- Izan eskura behar duzuna: elikagaiak, edari beroak...



## IZAN SALBAMENDU-BALTSAK **beti prest**




**Ez jarri askatzea eragotzi  
dezaketen giltzarrapo edo  
finkapenik**

- Behar bezala instalatuta eta erraz iristeko moduan gorde, larrialdi egoeran berehala erabili ahal izateko.
- Trebatu baltsaren erabilerarekin eta ur gainean jartzeko maniobrarekin.
- Berrikus itzazu urtero baimendutako zerbitzuguneetan.
- Egiaztatu aldizka elementu guztiak egoera onean daudela.



## CO<sub>2</sub>-A ERAGINKORRA DA baina hilkorra izan daiteke zuretzat



**Ez sartu sutea erabat itzalita egon arte eta makina-ganbera erabat aireztatuta egon arte.**

- CO<sub>2</sub>ak sua itzaltzen du airean oxigenoa gutxituz eta itolarria eragin dezake.
- Jarraitu makina-ganberan dagoen sua itzaltzeko sistema finkoaren argibideak.
- Kontuz ibili deskargatzerakoan eta egiaztatu langile guztiek makina-ganbera hustu dutela.
- Aldian-aldian egiaztatu sistemaren elementu guztien egoera eta ez manipulatu.
- Berrikusi urtero instalazio osoa, suteen aurkako babeserako baimendutako enprekin.



# LASAI, EZ ZAUDE BAKARRIK

## Salbamenduko GAILU ERRADIOELEKTRIKOAK



**Ez ahaztu txalupara edo  
salbamendu-txalupara  
eramatea**

- Euskarrietatik kendu eramateko eta aktibatzeko, ekipamendu bakoitzean inprimatuta dauden jarraibideen arabera.
- Kendu transpondedore eta irrati-baliza satelitarioetako zigilua eta askatu transmititzeko-selektorea.
- VHF irrati-telefono eramangarrietan sakatu edo hautatu <ON> posizioa eta ekipoa 16. kanalean piztuko da.
- Mantendu ekipamenduak eta horien elementuak beti eskuragarri eta identifikagarri, eta egiaztatu aldian-aldian zure baterien iraungitze-data.